


txinpart⁵⁹

www.hurtzaroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2014ko
EKAINA





txinpart⁵⁹

www.hartzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hartzaro informatzen	3
Euskararen txokoa	10
Hatzak bete lan.....	14
Ikastolaren eguna	21
Gu ere kazetari	33

ARGITARATZAILEA

Hartzaro ikastola
Elorrondo, z/g
20159 Oiartzun
© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Ikasturte honetako lehen alean genioen erronkaz betetako ikasturtea gurela aurtengo hau. Eta horrela izan da alajaina! Gure ikastola erakunde bizia dela ez du inork zalantzan jarriko; ikasturtez ikasturte sortzen dira egitasmo eta aukera berriak. Baita aurreikusi gabekoak ere.

Horiek eta beste ohiko gai batzuk jaso ditugu 3. ale honetan, guztiak jasotzea ezinezkoa baita. Esate baterako, azken ikasturte hauetan tapoi bilketa solidarioaren kanpaina martxan izan dugu, eta ikasle, guraso, langile... solidarioak garela erakutsi dugu. Hori dela eta, Beñaten esker ona jaso dugu ale honetan.

Bestalde, bretoiekin izandako trukeaz ikasleen iritzi eta hausnarketa interesgarriei ere lekua egin diegu. Horiez gain, Periko Sanroma, guraso ohia eta 30 urtean atletismo taldeko irakasle eta gidari kementsuari elkarriketa ere egin diogu, jendaurreko omenaldi zalapartatsuak gustuko ez dituelako. Eta horiekin batera, beste hainbat eta hainbat gai eta berri argazki koloretsuz hornituak.

Aurrekoetan bezala, gustukoa izango duzula espero dugu. Udako oporretako lehen eguzki irripa izan dadila, hodei beltz guztien gainetik.

Gure aldetik 2014-15 ikasturteko erronkak prestatzen hasiak gara. Dagoeneko, KMK14ko ERRONKArako taldea osatu dugu.

San Juan bezperako uda giroan agurtzen zaituztegu.

Opor onak igaro, udaz disfrutatu eta irailean berriz ere ikastolan elkartuko gara.

Ongi pasatu!



IBILALDIAK ETA EKINTZAK

Haur Hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
HH1	APRILAK 11	ERGOIENA	BASERRIKO ABEREAK IKUSTEA
HH1	MAIATZAK 9	BIDE GORRIRA	BARATZAK IKUSTEA
HH1	EKAINEAN	SAN MARKO MENDIRA	IKASTURTEARI AMAIERA EMATEA
HH2	MAIATZAK 9	OIARTZUNA	HERRIKO DENDAK IKUSTERA
HH2	MAIATZAK 15	ALCAMPORA	SUPERMERMEKATUA IKUSTERA
HH2	MAIATZA	IGERILEKURA	ELKARREKIN GOZATZEA
HH2	MAIATZA	LIBURUTEGIRA	IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA
HH2	EKAINA	OIARTZUNDIK BARRENA	ELKARREKIN ONGI PASATZEA
HH3	MARTXOAK 17	ELIZALDERA	AUZOAK EZAGUTZEA
HH3	MARTXOAK 20	GURUTZERA	AUZOAK EZAGUTZEA
HH3	MARTXOAK 25	ERRENTERRIARA	ZINEMA EUSKARAZ IKUSTEA
HH3	APIRILAK 4	UDALETXERA	ALKATEAREKIN ELKARRIZKETA EGITEA
HH3	APIRILAK 9	ARRAGUARA	AUZOAK EZAGUTZEA
HH3	MAIATZAK 6	AIARA (PAGOETA PARKERA)	ERLEEN BIZITZA GERTUTIK IKUSTEA
HH3	MAIATZEAN	KIROLDEGIRA	IGERILEKUAN JOLASTEA
HH3	MAIATZAK 19,20	ARRITXULORA	ELKAR BIZITZA, INGURUNEA EZAGUTU ETA DISFRUTATZEA
HH3	MAIATZAK 23	UDALETXERA	AGENDA 21, URTEKO PLENOA
HH3	MAIATZAK 30	UDALETXERA	MUSIKA EMANALDIAN PARTE HARTZEA
HH3	EKAINEAN	KURTZO BUKAERAKO IBILALDIA	ONGI PASATZEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH1	MAIATZAK 7	ORERETAKO NIESSEN ARETORA	ZINEMA EUSKARAZ GOZATZEA
LH1	MAIATZAK 16,23	OIARTZUNGO PARKERA	NATURA BEHATZEA ETA AZTERTZEA
LH1	MAIATZAK 28	KRISTINA-ENEA PARKERA	NATURA BEHATZEA, AZTERTZEA ETA PARKEAZ GOZATZEA
LH1	EKAINAK 5,6	ASTIZERA GAUA PASATZERA	ELKARBIZITZA SUSTATZEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH2	Maiatzak 7	Zinema euskaraz	Zinema euskaraz gozatzea
LH2	Maiatzak 15	Oiartzunen zehar ibilaldia	Natura behatzea eta aztertzea
LH2	Ekainak 5, 6	Sastarrainera gaua pasatzera	Elkarbizitza sustatzea

Lehen Hezkuntza 2. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH3	Martxoak 19	Jangela gaineko aretoan	El Watan taldeak eskainitako emanaldia entzutea
LH3	Martxoak 20	Donostian	Txanelako unitatean landutakoa bertatik bertara ezagutzea
LH3	Martxoan	Laborategian	Txanelak proposaturiko esperimenduak gauzatzea
LH3	Martxoak 26	Jangela gaineko aretoan	Euskaraz Biziko 2. kanpainaren barruan Jon Zabaleta ilustratzailearen lana ezagutzea
LH3	Apirilean	Laborategira	Energi iturrien aurkezpena, EDP-n eskutik. Agenda 21en lanketan
LH3	Apirilak 1	Jangela gaineko aretoan	YUUL bozketa eta liburu erakusketa
LH3	Maiatza	Mendibilgo Txara	Txarako ekosistema behatzea
LH3	Ekainak 2-3	Uitzira	Elkarrekin bizitzen ikastea

Lehen Hezkuntza 2. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH4	Maiatzak 8	Penadegiko araztegira	Urak araztegitik pasa eta etxeetara iristeko egiten duen bidea ezagutzea
LH4	Ekainak 3	Agenda 21	
LH4	Maiatzaren 26tik ekainaren 6ra	Euskaraz Bizi kanpaina: Jolasak euskaraz	Euskaraz jolastuz elkarrekin ongi pasatzea



Lehen Hezkuntza 3. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH5	Maiatzak 22	Madalensorora	Bertsolaritza sustatzea
LH5	Maiatzak 29	Lexoti bertso jaialdira	Bertsozaleatasuna bultzatzea
LH5	Maiatzak 30	Pagoetako parke naturalera	Ekosistemak ezagutzea
LH5	Ekainak 2-3-4	Zuhatzara (Araba)	Gure arteko harremanak sendotzea

Lehen Hezkuntza 3. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA/NON	HELBURUA
LH6	Martxoak 6	Urnietako zabor-sailkatze gunera	Lan sektoreen lanketa
LH6	Martxoak 14	Lasartera	Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa
LH6	Apirilak 2	Ikastolan	Euskaraz Bizi: Jesus M ^a Iturralde idazlearen bisita
LH6	Maiatzak 22	Madalensorora	Bertso jaialdia
LH6	Ekainak 4,5 eta 6	Etxarri Larrauna (Arotz Enea)	Harremanak lantzea

Bigarren Hezkuntza DBH 1-2-3-4				
MAILA NOIZ		ZER	NON	HELBURUA
DBH1	Maiatzak 8, arratsalde	Berde berdea ekimena	Ikastolan	Natur Zientziak irakasgaiarekin loturiko esperientziak - ikerketa
	Maiatzak 21	Lexoti saria	Ikastolan	Euskal kultura ezagutzea eta bertsolaritza sustatzea
	Maiatzak 23	Eskola Agenda 21: Herri batzarra	Oiartzungo Udal pleno aretoan	Ingurumenarekiko sentsibilizazioa
	Ekainak 5, arratsalde	Altxorretan barrena	Ikastolan	Euskal Herriko inguruneen ezagutza
	Ekainak 11-12-13	Espejo	Espejon (Araba)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekaina	Herri kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala
	Ekainak 19	Antzerki emanaldia	Ikastolan	Antzerki tailerrean egindako lana ikusteko aukera paregabea
DBH2	Maiatzak 23	Eskola Agenda 21: Herri batzarra	Oiartzungo Udal pleno aretoan	Ingurumenarekiko sentsibilizazioa
	Ekainak 4	Ernioko kobazuloa	Ernion	Gorputz Hezkuntza eta Natur zientziak uztartzen dituen ekintza: espeleologia
	Ekainak 11-12-13	Acedo	Acedon (Nafarroa)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekaina	Herri kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala
DBH3	Maiatzak 6-7-9	Arraunketa Ibaikakoekin	Erreterian	Arraun mundua gertutik ezagutu
	Maiatzak 23	Eskola Agenda 21: Herri batzarra	Oiartzungo Udal pleno aretoan	Ingurumenarekiko sentsibilizazioa
	Ekainak 11-12-12	Gorliz	Gorliz (Bizkaia)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekaina	Herri Kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala
DBH4	Maiatzak 14	Eurohiria DBH4 Biologia/Geologia	Donibane Lohitzune	Mugaz gairdiko trukea
	Maiatzak 23	Eskola Agenda 21: Herri batzarra	Oiartzungo Udal pleno aretoan	Ingurumenarekiko sentsibilizazioa
	Maiatzak 28	Idazlea ikastetxean: Jon Arretxe	Ikastolan	Irakurzaletasuna sustatzeaz gain idazlearekin zuzeneko harremana
	Ekainak 9-10-11-12-13	Catalunya: Coma-ruga	Coma-rugan (Tarragona)	Ikasturteari amaiera eman eta lagunartean gozatzea
	Ekaina	Herri kirolak	Ikastolan	Gorputz Hezkuntza irakasgaiarekin loturiko ekimena: Euskal Herriko ondare kulturala

Ikastolako bertsolariak *emankor*

2013-14 ikasturtean ere

HLn hasi eta LHn barrena DBHraino heltzen dira bertsolaritzaren adarrak gure ikastolan. Hezkuntza arautuari dagozkion plan eta programek aurrera jarraitu ahala, gero eta indar handiagoz heltzen dira emaitzak eskolaz kanpoko proiektuetara.

Aurtengo **Bertso Eskolan** lau talde izan ditugu, LHko 6. mailatik, DBHko 3. maila arte. Iraitz Mateo, Izaro Toledo, Jon Otegi eta Karmele Mitxelena izan dira ikasturte honetan irakasle lanetan aritu direnak, eta ederki aritu ere.

Gipuzkoako Eskolarteko 34. Txapelketan, Lasarte-ko Manuel Lekuona kultur etxean, 50 ikaslek hartu dute parte bertso paperetan, martxoaren 14an ospatu zen ekitaldian. Bertan bi sari eskuratu dituzte gure bertsolariek. **Araitx Sagarnak** bat, DBH 1-2 sailean, eta **Iraitx Mateok** bestea, 15-18 urte bitartekoetan.

Bat-bateko saioan 8 bertsolarik hartu dute parte ttikien mailan, baina aurrez ez dute lehiarik izan, antolatzaileek hala erabakita. Handien mailan, Jokin Irastortza, Jon Otegi eta Iraitx Mateo aritu dira kantari, eta **Iraitxek finalerako txartela lortu du.**

Ikasturtea ixteko, **32. Lexoti saria** ospatu dugu ikastolan maiatzaren 29an. Ohiko eran, Karmele Mitxelena aritu da gai jartzen eta aurkezpen lanetan parte hartu duten bertsolariekin, Bertso Eskolako 20 bertsolariekin hain zuzen ere. A zer nolako bertsolari saila ohol-tza gainean!

Bat-bateko saioaren ondoren bertso-paperetako sariak banatu dituzte. 6. mailako txapelduna **Markel Irastortza** izan da, eta DBH 1eko irabazlea **Oihane Perez**. Maila honetan, beste bi aipamen ere izan dira **Anje Delgado** eta **Ekain Lopezentzat**.

Oihanereren bertsoak

Gaia: Amak galdetu dit ea maite dudan.

-1-

Askotan haserretu
egin gara biak
irain ugari eta
gatazka larriak
nahiz eduki ditugun
haserre aldiak
maitasunez sendatu
dituzu zauriak.

-2-

Zu zara nire gaua
zu nire eguna
zu nire bizitzako
bidaiko laguna
argitu nahi nizuke
zalantzan duzuna
jakin zurea dela
nire maitasuna.







EUSKAL HERRIKO DANTZARI EGUNA OIARTZUNEN

Euskal Herriko Dantzari Eguna, Euskal Dantzarien Biltzarrek antolatzen duen jarduera da. Horren helburua da Euskal Herriko lurraldeetako dantza taldeak egun batean elkartzea eta ditugun dantzak eta folklorea erakustea.

Urtero egiten da. Azkena Gasteizen (Araba) egin zen 2012. urtean, aurrekoa Erandion (Bizkaia)... Horrela urte urte Euskal Herriko lurralderen batean.

Aurten Gipuzkoan egitea egokitu da eta Oiartzunen ospatuko da urriaren 12an. Egun horretan Euskal Herriko lurraldeetako dantza taldeak etorriko dira gure herrira.



Egitaraua erabat itxita ez eduki arren, zerbait aurrera daiteke:

11:00etan dantza taldeak herrira iritsiko dira. Elizalde Herri Eskolan eta Haurtzaro Ikastolan aldatuko dira.

11:30ean herriko kaleetan zehar desfilea egingo da. 12:00etan plazetan (Doneztebe plazan, Landetxe plazan...) dantzak ikusteko aukera izango da.

13:00etan talde guztiak Doneztebe plazan bilduko dira eta plaza dantzak egingo dituzte: fandangoa, arin-arina, jauziak, Larraín dantza...

14:30ean parte-hartzaileen herri bazkaria izango da. 17:00etan Erromeria eta 20:00etan jaiaren amaiera.

Asteazken zehar hainbat ekitaldi ere antolatuko dira.



TAPOI BILKETA

Kaixo Haurtzaro Ikastola!

2 urte eta 6 hilabeteren ondoren tapoi bilketari amaiera emango diogu. Azkenean, 40 tona tapoi lortu ditugu. Ez da izan lan erreza, baina ilusio handiarekin eta familia, lagun eta pertsona askoren laguntzarekin lortu dugu.

Momentu honetan, azken ebakuntzarengatik, hanka berriro jartzen hasi naiz eta pixkanaka berriz ibiltzen ikasi behar dut. Baina nire helburuak lehengo bera izaten jarraitzen du: korri egitea. Beraz, hau lortzen dudanean jakinaren gainean jarriko zaituztet.

Azkenik, eskerrak emateko idazten dizuet, zuek gabe hau ez bainuen lortuko. Eskerrik asko Haurtzaro ikastolako ume, langile, guraso eta mundu guztiari.

Mila esker denagatik!

Beñat

Energia kontsumoa gutxitu dezagun Eskola Agenda 21

Honezkero arrunt entzuna dugu lelo hau. Ikasturtearekin batera, Eskola Agenda 21eko lanek bere amaiera txukuna izan dute, ikasleen ordezkariak Oiartzungo Udaleko pleno berezian parte hartzearekin batera.

Urtean zehar ENERGIArekin lotutako hainbat gai jorratu ditugu, bakoitzak bere mailan. Besteen artean, HHko txikitxoek argiak itzaltzeko ohiturak landu dituzte. LHkoek hainbat lan, irudikapen bikain, kontzeptu mapa eta txosten idatzi dituzte. Eta DBHkoek lan, eraikuntza, lelo aurkezpen dotoreak egin dituzte. Eta hau guztia zertarako? Gure herriaren eta ingurumenaren garapen iraunkorrean sinesten dugulako eta gehiegizko energia kontsumoa ekidin nahian gabiltzalako. Eta edukiak landuz eta ikerketak garatuz, arian-arian, gure ikasleek hausnarketa bikainak egin dituzte eta energiaren kontsumoaren inguruko konpromisoak hartu dituzte mailaz maila.

Hauek guztiak udalari eskaini dizkiote, maiatzaren 23an egin den udal batzarrean. Denok jarri behar dugu gure alea guztion parte-hartze eta konpromisoarekin herri hobea lortzeko eta gure ingurumenak horrela bizirik irauteko.





Euskaraz bizi 3. kanpaina

EUSKARAZ BIZI EUSKARAREKIN JOSTATZEN

Hirugarren hiruhileko honetan, agendak hain baterik izan ditugun honetan, Euskaraz Bizi egitasmoak izan du bere lekua, eta ez nolanahikoa.

Oiartzungo hizkerari bultzada eman nahian, duela pare bat ikasturte egindako hausnarke-tarekin jarraitzeko, Oiartzuera taldearekin aritu gara elkarlanean. Apirilaren 7tik 13ra bitar-tean, "Oiartzueraren eta memoria historikoaren astea" antolatu zen eta bertan hainbat ekintzatan hartu genuen parte, gure herriko ondare historikoa eta linguistikoa zabaltzeko asmoarekin. Halaber, ikastolako DBH 1. mailako ikasleek "Gaztetxea edo gazta etxean" antzezlan eskaini zuten.



Bestalde, hain arrakastatsua izan ohi den *Jostatu euskaraz, euskararekin jostatu* kanpainan murgildu ginen maiatzaren 26tik ekainaren 6ra bitartean.

Hamabostaldi horretan zehar, ahozkotasuna lantzea izan da gure helburu nagusia, jolase-tan elkar animatzeko erabiltzen diren esamolde jatorrak indartuz: *eman gogor!*, *eutsi goia-ri!*... Girotzeko *Euskara da Euskal Herri* abestia aukeratu dugu, honen leloa kanpainaren funtsarekin erabat uztartzen baita:

*Nirekin etorri, bidez bide herriz herri.
Egin dezagun euskaraz kantatu, lan eta jolas.
Euskara da Euskal Herri.
Gurekin etorri bidez bide herriz herri.
Gurea zaintzen nahiko lan ikasi dut ikastolan.
Euskara da Euskal Herri.*

Kanpaina borobiltzeko ikasturte amaieran ikasle nahiz irakasleek parte hartzeko jolasak antolatu genituen eta bertan landutako esamoldeak erabiltzeko parada izan genuen.

**Euskararen alde oraindik badugu zeregina,
baina baita horretan aritzeko grina ere.
Izango duzue gure berri!**





IDAZLEEN *Bisitak*

HH 3. maila

AURTEN ERE LIBURUAREN EGUNA GOGORATU DUGU EUSKARAZ BIZI PROIEKTUAREN BARRUAN. ANTTON KAZABON ETA LUR KORTA IZAN DITUGU GUREKIN. IPUIN, JOLAS ETA OLERKI POLITAK KONTATU DIZKIGUTE ETA GUK DENOK PARTE HARTU DUGU ETA OSO ONGI PASA DUGU.

ZEINEN IPUIN POLITAK IKUSI DITUGUN!



LH 2. zikloa

Aurtengo EUSKARAZ BIZIKO kanpainaren barruan kokatzen den irakurzaletasunaren egitasmoan, Jon Zabaleta ilustratzailea izan genuen gurekin. LH2 zikloko ikasleek bere marrazteko gaitasunaz gozatzeko parada ederra izan zen. Idei bat eman, eding beltza eskuan hartu eta jangelako mahaia "kaballete" gisa erabiliaz, idei hori marrazki gauzatzen zela ikusteak erabat txunditu eta liluratu gintuen

Berak egindako lanak LH2 zikloko sarreran daude ikusgai denon gozamenerako. Eskerrik asko JON!



LH 6. maila

Aurten Joxe Mari Iturralde, idazle tolosarra, gurekin, 6. mailakoekin, izan dugu. Oso adi eta gustura egon gara. Bere liburuetan agertzen diren pertsonaiak aurkeztu dizkigu: Risky, Anuska... Eta honekin batera erakutsi dizkigu Riskyren zenbait jolas eta hieroglifiko. Horrela, poliki-poliki, aurreratu dizkigu Risky-k bizitu izan dituen hainbat abentura eta barrabaskeria.

DBH 4. maila

"Idazleak ikastetxeetan" programan parte hartzen ari dira DBH 4ko ikasleak, Euskal Idazleen Elkartarekin lankidetzan. Programa horren bidez euskal idazleen lana ezagutarazten da. Irakurzaletasuna sustatzea da azken xedea. Jon Arretxeren 612 € euro eleberria irakurri berri dute eta maiatzaren 28an izan da idazlea ikastolan, hitzaldia eman eta ikasleekin bizipenak trukatu ditu.





D.B.H4-koen agurra

Beste urte bat joan zaigu, eta urtero legez DBH 4ko ikasle-ek agur bero bat eskaini nahi dizuegu. Eskuttunen igarotako urte hauetan lana alde batera utzita barre eta algara izugarriak bota ditugu eta denok elkarrekin talde zoragarri bat osatu dugu.

Aurtengo taldea inoiz baino handiagoa izan da; interes handia erakutsi du eta lanerako gogoz etorri da. Kanpaina ezberdinetan, momento ezberdinak bizitu ditugu, une estu eta bereziak, gure oroimenean geratuko direnak. Hala ere, ez da azken ostirala izango euskararen alde lan egingo duguna, izan ere hemendik kanpo ere jarraituko dugu, guk hainbeste maitatzen dugun hizkuntza hau babesten, gure zati txikia ekarriz.

Hau guztia ere eskertu nahi genieke azkeneko urteetan gure alboan eduki ditugun irakasleei, Maider Lekuona eta Donibane Azkarateri, izan ere zuek lan handia egiten duzue gurekin batera. Nahiz eta hemendik joan, eta gure azken lau urte hauek oso azkar pasa izan, hona, ikastolara, etortzeko asmoa ere badugu, aurrekoek egin duten bezalaxe. Ikastola gure etxea bihurtu da, eta ateak zabaldurik edukiko ditugula ere argi gelditu zaigu denoi.

Beraz, gehiegi luzatu gabe, agur bero bat denoi, eta mila esker emandako guztiagatik.

DBH 4ko Eskuttuneko ikasleak



Kaixo denai!

Oangun Kuadrillategiko begiraliri tokatu zaigu txoko hontan idaztia ta, egiya san, gusto haundiz kontatuko dugu aurtengo ikasturtia nondik noa dijun iya ikasturtian bukaera iritsi gan hontan.

Indartsu hasi giñan kurtso hasieratik ta gure gurditik, pixkanaka-pixkanaka, batzun batzuk jexten jon din arren, indartsu seitzen dugu ta, bateze, ongi pasten jarraitzeko goguakin gaude!

Ekintza asko izan dia ikasturte guzian zehar in ttugunak: pizza lehiaketa, pala txapelketak, zine arratsaldik, kirol ginkanak, beldur gaua, Trintxerpeko Kuadrillategi euna (eskualdeko ta Lasarteko Kuadrillategi guzian bildu ta lagun berri asko itteko aukera man tziguna)... ta baita bi asteburu pasa ahaztezin re! Aurrenekua Zarautzea, a ze olatu festa! Ta, bigarrena, in berriya dugun Barriako aterpetxeako irteera, hau re beste Kuadrillategitako lagunakin.

Asko izan da Kuadrillategik urte guzian zehar eman diguna (momentu gogoangarriyak, lagun berriyak, errita txoro batzuk ebai tartin, e gaztiak! Jijiji...) ta oandik e, seuru gaude, seittuko digula ematen, hau oandik ezpaita bukatu! Egualdiya hobetzen hasten denin, ekaina bukaeran, beste irteera bat badugu antolatua gure gaztiantzat ikasturtiai merezi dun bezelako agurra emateko ta, beraz, kontatuko zattuztegu zemouz joten tzaigun!

Azkenik, pare bat kontu aipatu nahiko genittuzke: aurrenekua, datorren urtian DBH1 ta 2yan zoztenak ANIMATU Kuadrillategira, erki pasko zute ta! Ta bigarrena, DBH3ra zuztenai, bakizute Kuadrillategiko begirale ta lagunak non gauden eozer ber tzutela re! Plazer bat izan da zuekin lan ittia! Mila esker!

Hoixe ba, besteik ez oangoz! Ongi-ongi izan ta bakizute... gau ta egun EUSKERAZ BIZI!

Kuadrillategiko begiralik.

ELIKADURA OSASUNTSUAREN GARRANTZIA



Jadanik igaro dira lau urte haur eskolan Ekolapiko proiektuarekin lanean hasi ginenetik. Eta zer da Ekolapiko? Ikastetxe eta haur eskoletako otordu menuetan irizpide ekologikoak kontuan hartuta, gertutasunean oinarritutako eta garaian garaiko produktuak kontsumitzea helburu duen proiektu da; bertako baserrietan sortutako elikagaiekin, elikadura ekologikoa eta osasuntsua eskoletako jan-geletan txertatzea alegia. Honela bada, Ekolapiko-ekin lanean hasi ginenean, gure menuetan elikagai ekologikoak txertatzeko konpromisoa hartu genuen. Barazki, fruta, zereal eta lekari ekologikoak txertatu genituen, hain zuzen ere.

Pixkanaka, proiektua sendotuz joan da eta aurten barazki sorta ederra ekartzen digute Igeldoko Aristondo baserritik. Gure sukaldariek harreman zuzena dute baserritarrek eta hartara, eskualdeko produktuen erosketari ere laguntzen diogu.

Ekolapikotik, elikagai ekologikoak bideratzeaz gain, gurasoentzat sentsibilizazio tailerrak, hitzaldiak, baserrietara irteerak... ere antolatzen dituzte. Bertako Elikadura Hezitzailea den **Sabrina Patok** laguntzen digu nutrizionalki orekatuak diren menuak diseinatzen. Berriki eskaini du gainera Urmendi Haur Eskolako gurasoentzat elikadura osasuntsuari buruzko hitzalditxo bat. Eta gai honi helduta, bere hitzak jaso ditugu elkarriketa honetan.

1. Zertaz ari gara elikadura osasuntsuaz hitz egiten dugunean?

Elikaduraz hitz egiten dugunean, ez gara ari sabela betetzeaz, gure gorputzak ongi funtzionatzeko behar dituen mantenugai (nutriente) guztiak elikadura egoki baten bitartez lortzeaz baizik. Ez da gauza bera sabela edonolako elikagaiz betetzea eta elikagai egokiz betetzea.

Osasuntsu elikatzeke egunero barazki eta frutak jan behar ditugu, energia emango diguten elikagaiak ere ezingo dira falta gure otorduetan; ogiaz, arrozaz edo pastaz ari gara. Hauek integralak badira askoz hobe. Lekariak ere oso garrantzitsuak dira... Azukre eta gantz asko duten elikagaiak saihestu beharko genituzke

2. Zer da elikadura ekologikoa?

Elikadura ekologikoa ez da soilik elikagai ekologikoz elikatzea. Elikagai hauek era eta kantitate egokian jan behar dira. Gainera, elikagaiak garaikoak behar dute izan eta ezin gara ahaztu ingurukoak edo ahalik eta gertuenekoak izateaz. Era ekologikoan ekoizteaz gain, salmenta zuzena eta etikoa izatea ere kontuan hartzea garrantzitsua da.



3. Zein da 0-3 urte bitarteko haurrengan elikadurak duen eragina?

Bi eragin nabarmentzekoak dira. Batetik haurrak hazten ari dira, nolabait esateko, beraien etxea eraikitzen ari dira. Etxea, gorputza, ahalik eta material hobereenekin eta egokienezkin eraiki beharra dago. Etxea zenbat eta trinkoagoa izan, orduan eta hobeto. Bestetik, haurrak bizitzen ikasten ari dira, elikadura oso gai garrantzitsua da, egunero 5 aldiz egiten dute eta! Beharrezkoa da otorduak elikagai anitzekin osatzea, hala, elikagai ezberdinak dastatuko eta ezagutuko dituzke. Dastamena garatzeko aniztasuna beharrezkoa da.



4. Otorduak desberdinak, noiz eta zenbat?

Haurrak 6 hilabete inguru dituenean elikagai ezberdinak jaten hasia komenigarria da. Beti ere haurren erritmoak errespetatuz. Garrantzitsua da haurrek lehen elikagaiak gurasoekin jaten hasia, konfiantza duten ingurukoekin. Ez dira haurrak behartu behar, baizik eta jatera gonbidatu. Gurasoak haurren ispilu direnez, gurasoek ere jaki berak jan beharko lituzkete. Kantitateari dagokionez, pixkanaka hasi behar da. Haurrak badaki ase noiz dagoen.

5. Otordu desberdinekin oreka nola bilatu?

Prestatzen ditugun plateren konposaketan arreta jarri beharra dugu. Otordu guztietan barazkiak eta frutak beharrezkoak dira, baita arroz, pasta, patata, ogia... Gainontzeko elikagaiak astean 2-3 aldiz jatea egoki litzateke, lekari, arrain urdina eta zuria, arrautza, haragi zuria. Aniztasunean dago gakoa. Prestatzen diren platerak kolore, zapore, testura ezberdinak izatea egoki da. Sukaldatzeko era ezberdinak erabil daitezke hauek lortzeko, gordinik, egosita, baporean, saltsetan, labean, salteatuta...

6. Non bila ditzakegu elikagai ekologikoak?

Geroz eta toki gehiagotan daude eskuragarri. Azoketan eta kontsumo taldeen bitartez zuzenean ekoizleei erosteko aukera izaten da. Urrutiago ekoizten diren elikagaiak herriko belar denda edo "eko" dendetan izaten dira.

Argi utzi zigun beraz Sabrinak elikadura osasuntsuak ze mailatako garrantzia duen gure tikiengan. Suerta daitezkeen osasun arazoak ekiditeko elikadura ohitura osasungarriak bultzatu eta irakatsi nahi dizkiegu haurrei. Orokorrean, denetik jan behar da, dietak koloretsua behar du izan, baina neurritz jan behar dela ahaztu gabe.

On egin!

Urmendi Haur Eskolako zuzendaritza taldea





haur Hezkuntza 1




LUIS OTAEGI EREDU HARTUAZ

LUIS OTAEGIREN ARTE LANA ONDO BEHATU ONDOREN (ZER IKUSTEN DA?, ZE MATERIAL NABARMENTZEN DA?...), MATERIAL DESBERDINAK ESKURATU GENITUEN.

BILDUTAKOA SAILKATU, UKITU, IGURTZI ... ONDOREN, GURE ARTE LANA EGITEN HASI GINEN.

TALDEKIDE GUZTIEN ARTEAN KARTOIA KOLAZ ONDO ORAKATU ETA BAKOITZAK GUSTUKOEN DITUEN ELEMENTUAK ITSASTEARI EGIN ZION.

ONDO PASA GENUEN ETA HARA HEMEN GURE OBRA.



OIARTZUNGO DENDAK IKUSTEN

OIARTZUN, GURE HERRIA, ALAIA BEZAIN POLITA DA. GURETZAT, HAURRONTZAT, GAUZAASKO DITU: PARKEAK, MENDIAK, KIROLDEGIA, IGERILEKUA...

BERTAN GUSTURA BIZITZEKO TOKI EZIN HOBEA DA, DENETARIK DUGU ETA. GELAN DENDA ETA EROSKETEN INGURUAN ARITU GARA: NON, ZER, NOLA EROSTEN DUGUN...

HERRIAN BARRENA BUELTATXO BAT EMAN DUGU ETA KONTURATU GARA EROSKETAK EGITEKO EZ DUGULA HERRITIK INORA ATERA BEHAR.

ARRAIN FRESKOA NAHI BADUGU ARRANDEGIAK BADI-TUGU, BERTAKO HARAGIA NAHI BADUGU HARATEGIAK ERE BAI, HERRIKO BASERRITARREN BARAZKI FRESKO-FRESKOAK ERE EDOZEIN DENDATAN EROS DITZAKEGU.

INGURUAN GERTATZEN DEN GUZTIAZ JAKITEKO PRENTSA ETA ALDIZKARIAK ESKURA, DOTORE IBILTZEKO ERE NON AUKERATUA BADUGU HERRIAN DITUGUN ARROPA DENDETAN ETA ETXEA HORNITZEKO ETA APAINTZEKO AUKERA ERE EZ DA FALTA.

AZKENIK GAIXOTZEN BAGARA EDO MINA BADUGU SALBU GAUDE, SENDAGIAK EROSTEKO BOTIKAK ERE BADITUGU ETA.

AH! ETA JAKIN EZAZUE DENDA GUZTIETARA JOATEKO **OINEZ** JOAN GAITEZKEELA ETA, OSO GARRANTZITSUA DENA, EROSKETAK **EUSKARAZ** EGIN DITZAKEGULA. HAU DA HAU BENETAKO HERRI OSO ETA BETEA!

HH 2KO IKASLEAK




haur Hezkuntza 3



AZKENEKO HILABETEETAN OIARTZUN EZAGUTZEN IBILI GARA. EGUN PASAK, EGUN ERDIZ... ALDE BATETIK BESTERA JOAN GARA. UDALETXEAN ERE HERRIKO ALKATEAREKIN ELKARRIZKETA EGIN DUGU ETA ORAIN GURE HERRIAZ GEHIAGO DAKIGU.

UDABERRIA IRITSI DENEZ, AIAKO PAGOETAKO PARKE NATURALERA JOAN GARA ETA BERTAN ERLEEN BIZITZA EZAGUTU DUGU.





LH 1. zikloa - 1. maila

GREZIARRI ERE IRITSI GARA!!!
 HAU OLIMPIADAK ASMATU ZIREN.
 BERAIEK OROIMENEZ GUREAK ANTOLATU
 DITUGU.
 OSO ONDO PISA GENUEN!!!
 BUKARERAN DENDAK DIPLOMA JASO GENUEN.



Natura gais lantzen ari garenez,
 Ezara barera joan ginen loreak
 eta zuhaitzak behatzen.
 Arko ikasi genuen eta oso
 dibertigarria izan zen.





LH 1. zikloa - 2. maila

LH 2. MAILAKOAK OIARTZUN IRRATIAN



Komunikazioaren alor zabalari heldu diogu oraingoan, eta ikasi dugu komunarekin ez duela bat ere zerikusirik. Komunikazioa, mezu-igorleak eta hartzaileak elkar ulertzeko sortutako harreman kodea da, eta horretarako komunikabide asko eta asko daudela ohartu gara. Orain bertan ere, aldizkari bidezko komunikazioa egiten ari garen arren, Oiartzun Irratiko estudioetan egindako irratsaioa izan dugu gaiaren ardatz. Horretarako lan-keta handia egin dugu; irratsaioaren atalak erabaki, sintoniak aukeratu, bakoitzak esan beharrekoa saiatu...



Honen guztiaren fruitua duela gutxi jaso dugu, gure belarriek Oiartzun Irratian eginiko irratsaioa entzun baitugu. Esatari txiki-handi bihurtu gara eta ikasi dugu komunikazio eta komunikabideek badutela beren zirrara, jostagarritasuna eta garrantzia ere. Beraz, komunika gaitezen!



LH 2. zikloa - 3. maila

LECTURA DE CUENTOS SONORIZADOS

Como proyecto de la 5ª unidad de Lengua Castellana hemos sonorizado 4 cuentos clásicos:



- Los músicos de Bremen
- El príncipe y el mendigo
- El bosque encantado
- El pequeño abeto


Este proyecto ha supuesto un gran reto al trabajo de grupo por el esfuerzo que suponía por un lado la lectura expresiva, la correcta vocalización, los silencios, el ritmo, la coordinación, el tono ..., y todo esto acompañado por sonidos que completaban la puesta en escena.




Después de haber ensayado los cuentos en clase, preparamos una presentación para los alumnos de 2º curso para que ellos también disfrutaran de este proyecto.




Ikastolaren eguna 2014











LH 2. zikloa - 4. maila

URA

Aurtengo honetan asko ikasi dugu urari buruz.

Hasteko, nola sortu ziren Lurra planeta eta bertako kontinente eta ozeanoak. Ondoren, bizidunek izan duten eboluzioa, uraren zikloa, uraren egoerak...

Gaiari bukaera emateko, irteera bat egin dugu Oiartzungo Ergoien auzoan dagoen Penadegiko araztegira. Jakin nahi genuen ea gure etxeetaraino nola iristen den hain beharrezkoa den ur garbia. Baita ikusi ere! Udaleko arduradunarekin hau dena behatzeko aukera izan genuen.

Lehenengo errekatik jasotako ura dekantatu egingen da zikinkeria handiena kentzeko. Ondoren produktu kimiko batzuekin hobeto garbitzen da. Geroago hondar berezia duten filtro batzuetatik pasarazten da eta azkenik kloro pixka bat nahasten zaio herriko ur biltegiara irits dadin. Ur biltegia nolakoa den ere ikusi genuen. Zenbat ur! 5.200.000 ur litro gordetzen dira bi deposituetan. Bertatik ikusi genuen nola hodi batzuetatik ateratzen den herriko auzo eta etxeetara iristen den ur garbi-garbia.





LH 3. zikloa - 5. maila

CHOCOLATE

Chocolate is delicious and it has got different types: plain, white, milk, ...

This year we had to do a chocolate party, we also put on a show. We did it for the first grade students.

To make chocolate:

First, they clean the cocoa beans. Then, they roast them. After that, they break them up and they blow the shells away. Then, they grind them. Later, they press them and make drinking chocolate, white chocolate, milk chocolate and plain chocolate.

The history of chocolate:

The history of chocolate started in the country we know today as Mexico. The Maya Indians, who lived there, in the Amazon region, were the first people to grow cocoa and used it as a drink a long time ago: around 600 AD.

LH5.Cko
Mara Larzabal,
Ekain Sein,
Eider Maya eta
Zuhaitz Manzisidor



ANJEL ALKAIÑEKIN ETBn



Iepa!

Malen eta Lidia gara. Gaztelaniako 4. unitate proiektuan erreportaje bat egin behar genuen irrati programa bat prestatzeko. Guk aukeratu genuen gaia antzerkia izan zen. Horretarako ETBra joan ginen Anjel Alkain entrebistatzera.

Pello (Maleren aita) bertako langilea da. Sarrerara etorri zen gure bila. "Kontrako eztarria" programa ikusterera joan ginen. Bertan ginela, Anjel Alkainek atsedena hartu zuen eta guregana etorri zen eta gela batera joan ginen berarekin entrebista egitera. Jatorra mutila! Natural-naturala, barregarria eta aktore ona!

Ondoren, Pellok makillaje gelara eta "Goenkale" saileko platoetara eraman gintuen. Azkenik bazkaltzera joan ginen eta hainbat aktore, aurkezle eta kamerarekin batera egon ginen.

Eskerrak eman behar dizkiogu Pellori bertara eraman eta guztia erakusteagatik, eta Anjel Alkaini gurekin hain jator portatzeagatik. Mila esker biei!



LABORATEGIAN

Txanelako 5. unitatean materia eta bere propietateak landu ditugu. Horretarako hainbat esperimentu egin ditugu laborategian materia ezberdinen masa eta bolumenaren neurketak egiten. Balantza, probetak eta beste hainbat tresna erabili ditugu laborategian aritzeko. Arauak (seguritatea, ordena, txukuntasuna...) kontutan hartu ditugu.

Esperimentuak egin aurretik helburuak eta hipotesiak formulatu, beharrezko materiala prestatu eta prozedurak finkatu ditugu, eta egin ondoren datuak jaso eta ondorioak atera ditugu.

Dibertigarria izan da esperimentazioaren bitartez kontzeptu berriak ikastea eta arinago egin zaigu gaia lan-tzea. Baina, hori garrantzitsua izan bada ere, taldean lan egiteko hainbat tresna eta prozedura landu ditugu. Lan eta arduren banaketa eta koebaluazioa taldeko lanaren oinarriak izan dira.

LH 3. zikloa - 6. maila





ZU ETA NI

Zu zara nire ametsa
Baina galdu egin zintudan
Eta gaur goizean malkoz
Putzu bat egin dut nire etxean
Ez dago inor munduan
Zu baino hoberik
Zu zarelako nire bizitza oso-osorik

Izaro Goiria DBH 1



ZU JOANGO BAZINA

Zu zara nire bihotzaren taupada,
zu ez bazaude bihotzak egingo du negarra
ez gorria, beltza geratuko da
zulo beltz bat bezala
joaten bazara, ez nuke nahi,
erlazio hau betirako irautea
ahaztezina izatea nahiko nuke,
elkarrekin pasatutako momentu onak
gogoan hartuz, eta txarrak atzean utziaz.

Maialen Etxebeste DBH 1




GAUERO-GAUERO

Gauero-gauero
gau ilunaren erdian
zu azaltzen zara
nire begi itsuen aurrean
nire maitasun gazteluan
ate joka.

Gauero-gauero
zure laguntzarekin
igotzen dut
itxaropenaren mendia.

Azkenean, egunaren erdian
lortu duzu
nire maitasun gazteluko giltza
nire bihotzeko
gelaxkako giltza.

Igotz Errazkin DBH 1



NIRE LAPURRA

Lapur bat bezalakoa zara,
nire bihotza lapurtu duzu eta.
Oraindik zuri itxaroten ari natzaizu,
bueltatuko zaren esperantzarekin.
Ez dut ahaztu noiz joan zinen
eta nola egin genuen negar.
Bueltatatu zaitez laster,
nire bihotzak,
zurearekin bat egin dezan.

Ainhoa Hernandez DBH 1 B



DBH 1 - 2. maila

DBH 1. MAILAN KARTEL LEHIAKETA

Gaia:

Energia

Ikasturte honetako hirugarren hiruhilekoan DBH 1. mailan, **Lengua** irakasgaian **En mis redes** unitatea lantzen aritu gara, publizitatearen sarean zintzilik.

Garai berean Eskola Agenda 21eko programan, **ENERGIA** gaia ere landu dugu.

Eta aukera aproposa iruditu zitzaigun bi gaiak uztartzeko. Horrelako, energia gaia ardatz hartuta, gaztelaniako klaseetan **KARTEL LEHIAKETA** antolatu dugu.

Makina bat irudi eta eslogan erakargarri bilatu eta sortu ondoren, teknika desberdinak erabiliz eta norberak bere gaitasun komunikatzailearen arabera, kartel koloretsuak eta deigarriak egin ditugu. Guztiak Eskola Agenda 21eko txokoan jarri dira ikusgai.

Esloganak era askotakoak izan dira. Batzuk aipatzekotan: **“Electricidad. No la gastes sin necesidad”, “Enciende la naturaleza”, “Ahorrando energía, mejorando tu vida”, “Apuesta por la energía solar”...**

Ikasleok publizitatearen sarean ederki defendatzen dakigula argi utzi dugu, eta energia aurrezteko zein baino zein modu eraginkorrakoak proposatzen ere trebeak izan gara.

Lehiaketa Katerin Artola ikasleak irabazi du. Bere eslogana honako hau izan da: **“¿QUIERES AHORRAR UN POCO? APAGA UN FOCO”**. Bigarren saria Ekhine Rivasek jaso du eslogan honekin: **“AHORRRA ENERGÍA Y TE IRÁ MEJOR”**.

DBH1eko ikasleak





DOSIS LETAL

Malcolm Rose

Editorial: Edebé

Año publicación: 2000

Temas: Literatura: Infantil y juvenil

Dosis letal de Malcolm Rose:

El guarda de seguridad recorrió el sendero de tierra bajo el ojo de la cámara. El campo de deportes del colegio todavía estaba húmedo por el rocío. El guarda esperaba encontrar a un pobre hombre, algún borracho con desaliñada barba blanca y una botella de alcohol de garrafa en la mano. No estaba preparado para hallar el cuerpo frío y sin vida de un joven elegantemente vestido.

TEMAS QUE SE TRATAN EN LA HISTORIA

Es una novela policíaca, ya que tienen que descubrir quién es el asesino de David. Por otra parte también aparece el tema amoroso, pues Ros y Kevin están enamorados y éste ayuda a Ros a encontrar al asesino de su hermana. También trata de la guerra, pues los sucesos ocurren como consecuencia de la Segunda Guerra Mundial.

OPINIÓN PERSONAL

Me ha gustado mucho el libro, sobre todo al principio, porque desde el comienzo la historia se pone muy interesante. Aunque hacia la mitad se me ha hecho un poco aburrido, el final me ha gustado porque era muy emocionante.

Por otra parte, el vocabulario utilizado es sencillo, y por eso no me ha resultado complicado de leer.

Recomendaría este libro a chicos y chicas de 13 años a quienes les gusten los libros de aventuras.

ASIER LIZARRAGA DBH 2B



HOW HEALTHY ARE TEENAGERS?

In the third term, the students of DBH 2 worked on a unit about teenage health. The objectives of this unit are to realize about the importance of maintaining healthy habits in relation to general health issues such as nutrition, sleep, basic hygiene, good studying conditions and being fit, to understand that the abuse of certain substances, like tobacco and alcohol, can be very damaging to our health and to apply basic procedures for scientific investigation (observing facts, gathering data, using information sources, processing data, drawing conclusions and presenting reports).

As an approach to this scientific investigation, first students conducted a survey to find out their classmates' habits regarding basic health issues. Then, the previously gathered data was presented in a graph using a computer application. They also wrote conclusions about it and finally they reported back to the class.

In the images below there is a selection of these graphs for you.

HEALTH ISSUES: GRAPH


Question: If given a choice of these two dishes, which one would you choose: a salad or a hamburger?

DIAGRAM




HEALTH ISSUES

Question: Do you wear a helmet when riding a bike?



HEALTH ISSUES: GRAPH

DO YOU HAVE A SHOWER EVERY DAY?





DBH 2 - 3. maila

HAURTZAROKO IKASLEAK ARRAUNEAN

Euskal Herrian arraunaz hitz egitean, garbi izan behar dugu ezin gaitzkeela kirol-dimentsiora mugatu, arrauna "kirola baino zerbait gehiago" baita. Elementu ugari ditugu jarduera hau gure kulturaren eta nortasunaren osagai bihurtzen dutenak. Eguneroko lanetik sortutako jarduera honek berezko hainbat ezaugarri ditu, bai kirola bera antolatzeko garaian, bai horren inguruan sortzen den ikusminean, bai testuinguru osoan.

Gorputz hezkuntza arloan, jolasa izango da oraingoz arraunean aritzeko arrazoi nagusia eta honela definitzen dugu gaitasun berezi bat: natur jardueretan oinarrituz, eskolaren inguruko zein Euskal Herriko inguruak eskaintzen dituen aukerak erabili, gorputzaren garapenarekin batera ingurune fisikoa eta kulturala ezagutzeko eta maitatzeko.

Natura-ingurunean egiten diren jarduerak izan ere aukera ematen du ikasleek ezaguna duten inguruan bere jarduera fisikoaren zati handia bertan egiteko eta dimentsio berria hartzen ari den aisialdia eta denbora librea inguru horretan antolatzeko.

Egoera honetan kokatu eta azken urteetan bezala, Hibaika arraun elkartearekin arrauna landu dugu aurtan ere DBH 3. mailako ikasleekin. Natura, gure ingurua eta aisialdiaren antolaketa lotu nahi duen ekintza honek Oiarzun ibaian jarri gaitu arraunean.


Trainerua, batela edo trainerilla ibaian sartu aurretik kontuan izan dugu itsasoaren egoera. Hibaikak dituen baliabideak martxan jarri ahal izateko marea zaindu behar da eta ondoren datak jarri. Bertara joateko gure bizikletak egokitu eta goiz ederra pasatzeko prestatu gara.

Eta horrela izan da, beroketa bizikletan, ondoren ur-hobian eta azkenean arraunak hartu eta Hibaikak lagunduta Oiarzun ibaiak sortutako bidetik itsasoraino sartu gara.

Ederra!

Iñaki Lertxundi

Gorputz Hezkuntzako irakaslea



ATLETISMOA NIRE KIROLA

13 urterekin hasi nintzen atletismoko munduan, taldea osatzeko pertsona bat falta zuten eta. Altura jauzian parte hartzea tokatu zitzaidan, nahiz eta ez izan nire proba gustukoena. Eraitza onak ikusi nituen lehenengo lehiaketan, 1,35 metroko jauzia eginez. Handik aurrera motibazioa eta giroari segituaz aurrera pausoak emanez joan nintzen proba honetan. 14 urte bete nituenean federazio barruan sartu ninduten Haurtzaro atletismo taldeak, baina Oiarzun ez zegoen beharrezkoa nuen materiala eta instalazioak. Orduan Irungo B.A.T taldearekin hasi nintzen entrenatzen.

Hobekuntza nabariak egin nituen eta hainbat titulu lortu: Euskadin eta Gipuzkoan bigarren postua lortu nuen 1,51 metroko jauziarekin. Nahiz eta beste talde batekin entrenatu, astean bitan entrenatzen dut Oiarzun. Haurtzaroko atletismo taldeko atleta bezala parte hartzen dut lehiaketetan, nire taldea delako. Oso gustura nabil atletismoa praktikatzeko, giro oso ona dagoelako. Hemen ez dago norgehiagokarik gure artean, bakoitzak berak eman dezakeen guztia ematea da.

Nerea Oiarzabal DBH 3



LA HERMANDAD DE LA ETERNA OSCURIDAD

Joaquín Londáiz

Este libro me ha gustado mucho porque contiene escenas de misterio, intriga, acción e incluso amor, y es esa mezcla la que hace el libro tan interesante.

Jonas Bigelow, el protagonista, es un chico de 13 años que de pronto descubre un mundo mágico y

fantástico que anteriormente desconocía y aprende que él, al igual que sus antepasados, puede hacer magia. Puede que más de un lector se vea identificado en este personaje tan carismático.

El libro en sí tiene muchas páginas, pero se leen con tal facilidad que una vez abierto el libro no se puede dejar de leer; en otras palabras: cala en la curiosidad del lector, en las ansias de saber lo que vendrá a continuación. En algunos casos, he podido apreciar algunas similitudes con la famosa saga de Harry Potter. Pero a medida que van transcurriendo las páginas, se ve que son historias totalmente distintas y no tienen nada que ver.

Yo recomendaría este libro a las personas que les gusten historias relacionadas con la magia y el misterio. Además, este libro contiene un final tan repentino que delata que habrá una segunda parte o que es sólo el principio de una gran saga.

Resumiendo todo lo dicho, pienso que es un buen libro y merece la pena leerlo.

*Paul San Sebastian
DBH 3*



Bidaia paregabea Coma-Rugan

Idatzi hau irakurtzen duzueneko, Coma-rugatik bueltan izango gara. Izan ere, DBH 4. mailako ikasleok ikasturteari amaiera bikaina emateko Tarragonako hiri horretan igaro dugu ekaineko bigarren astea. Primeran ibili gara, ederki gozatu dugu bost egun ahaztezin horietan. Han geundela, ederki gogoratu gara hona etortzeko egindako lan guztiaz.

Ikasturte hasierara eraman gintuen gure oroitzapenak, hasiera-hasieratik konturatu ginen talde lanean aritzea beharrezkoa genuela gure helburua lortzeko. Horregatik, bost talde sortu genituen tutoretzako lehen saioan: Bonboien salmenta bideratuko zuen taldea; San Tomas eguneko ekintzez ardura hartuko zuena; Olentzero egunaz arduratuko zen taldea; Santa Ageda bezperako kantaldia zuzenduko zuena eta, azkenik, hamaiketako salmenta bideratuko zuen taldea.

Ezbairik gabe, hamaiketako salmenta izan da egunero-egunero lana, gogoia eta erantzukizun maila handia eskatu diguna. Era berean, hauxe izan da diru iturri handiena Coma-rugara iritsi ahal izateko, baina ez dugu alde batera utzi behar Tolosako Kilometroetan Erronkan parte hartu zuten ikasle eta irakasleei esker irabazitako diru laguntza ere (1.000€). Hamai- ketako gaira itzuliz, esan dezakegu arrakasta handia izan dutela ikasto- lako partaideen artean. "Urdaiazpiko sandwich-a mesedez?", "Txorizo bokata bai al dago?"... Horrelakoak entzun ditugu eguna joan eta eguna etorri. Gu, bitartean, barraren bestaldean, pozik eta langile, dena pronto edukitzeko. Horretarako, ezinbestekoa izan da ostiralero erosketak egite- ra joatea, Alcampo-ra; hangoek ere ederki ezagutzen gaituzte jada.

Aurtengo Coma-rugako ikas bidaia 13.000€-ko aurrekontua izan du, eta bideratu ditugun ekintza guztiei esker hori eta gehiago lortu dugu.

Orain, dagoeneko, gure lekukoa hartu dute DBH 3. mailako ikasleek; ziur gaude haiek ere gu bezain arduratsu eta gogotsu ariko direla. Aupa zuek! Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu urtean zehar gure helburuak lortzen lagundu digun orori. Uda zorionsua guztientzat!

DBH 4. MAILAKO IKASLEAK



Gure ibilbidea ikastolan

Duela 13 urte hasi zen dena. Haur Hezkuntzan eman genituen gure lehen urratsak; gurasoengandik banantzea zaila egin zitzaigun arren, gogo handiz etortzen ginen gure ikaskideekin jolastera. Gogoan ditugu oraindik elkarren artean edukitzen genituen borrokak, nahiz eta orain momentu horiek gogora- tzean barregura etortzen zaigun. Ipuin eta istorioen artean iga- rotzen genituen ordu eta egunak. Nor ez da akordatzan "Hiru txerritxoak", "Arroxali", "Makila kixki" ipuinez? Haiek bai garaia!

Baina, denei bezala, iritsi zitzaigun guri ere beste pauso bat ema- teko garaia, eta Lehen Hezkuntzan sartu ginen. Ttantto, Txiritx eta Xango agurtuz, Txanelako lagun berriak topatu genituen. Horien laguntzaz ikasi genuen idazten, eragiketak egiten, baita dinosauro edo lehen gizakien bizimodua ezagutzen ere. Bide horretan gure gelakideekin harremanak sendotu eta irakasle berrien laguntzaz gure jakin-mina ase genuen.

Laugarren mailara iritsi ginenean gelak aldatuko zizkigutela esan ziguten, eta garrantzi handiko erabakia hartu behar izan genuen: adiskide guztietatik gelakide berriak aukeratzea. Hasieran ez ginen gustura, baina denbora aurrera joan zen heinean harreman berriak sortu eta lagun berriak egin genituen. Hura poza!

LHri amaiera eman genion eta ordutegi berriarekin DBHko etapari ekin genion. Ikasle zaharragoek beldurra sartu zigutenez gogo askorik gabe hasi ginen. Baina probatu ahala konturatu ginen ez zela hainbesterako. Lehen aldiz hainbat arlo aukeratu behar izan genituen, horrela gure bidea zehazten hasi ginen. Lau urte haue- tan egindako hainbat proiektu ez zaizkigu inoiz ahaztuko, hala nola Britainako trukea, Gorlizeko bidaia, Erronka...

Orain bidaia berri bat hasi behar dugu, eta hainbat lagun agurtzeko garaia iritsi da. Bartzelonako bidaia eskaini digu ederki merezita- ko atsedena eta lagunekin eta gelakideekin ongi pasatzeko azken aukera. Ahaztezina izan da.

Iritsi zaigu agur esateko garaia; ikastolan sortutako harremanak eta esperientziak ez ditugu inoiz ahaztuko eta betiko gordeko ditu- gu gure bihotzean, azken finean haiek izan baitira gure etorkizuna eraikitzen lagundu diguten lehen urrats garrantzitsuenak.

Ikastola eta bertako kideak uzteak tristura sorrarazten digun arren, badakigu beharrezkoa dela aurrera jarraitu ahal izateko. Eskerrik asko gure bidaia honetan lagundu diguzuen guztiei, eta jakin hau ez dela agur bat, gero arte baizik!

Larraitx Etxarte, Ane Lizarraga, Larraitx Etxebeste eta Ane Arruti



DBH 2. zikloko ikasleak Erronkako proba batean.



DBH 4. mailako ikasleak hamaiketako goxo-goxoak prestatzen eta saltzen.

Periko Sanroma

elkarrizketa



30 urte pasa dira 1984an **Haurtzaro Atletismo Taldeak** bere lehen pausoak eman zituenetik. Eta Periko da, hain zuzen, 30 urte horiei lotura ematen diena, hasieratik gaur arte entrenatzaile moduan aritu da eta. Berarekin egon gara.

1984. urtea zen. Nolatan atletismo talde bat Oiarztunen?

Alvaro Agirrerena izan zen ideia. Bizilagunak izateaz gain, ikastolako kontseiluko kideak ginen, eta kontseiluari berari ere gustatu zitzaion ideia. Garai hartan Oiarztunen futbolekin bakarrik aritu zitekeela uste dut, eta Lartaunekin pilotan eta txirrindularitzan ere bai. Herriko gazteriari beste aukera bat eskaini nahi genion.

30 urte pasatu ondoren, zein oroitzapen dituzu hasiera hartaz?

Hasiera guztiak bezala, gurea ere zaila izan zen. Errazena Bixenteri gustatzen zitzaizkion krosetara joatea izan zen, baina pixkanaka pistara hurbiltzen joan ginen, niri gehiago gustatzen zitzaidana hori baitzen. Probetan parte hartu ahal izateko Kirol Elkartea sortu behar izan genuen, eta harrigarria izan zen denbora gutxian Haurtzaroko gaztetxoek lortu zutena: Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketetan garaipenak eta baita Espainiako errekorrak ere. Oso urte politak izan ziren, oso giro onarekin, orain arte mantendu nahi izan dugun giro ona.

Nola ikusi eta bizi izan duzu taldearen bilakaera urte luze hauetan?

30 urte hauetan dominen eta garaipenen lorpena mantendu da, baina batez ere lehen aipatutako giro ona izan da mantendu dena, eta horrek bultzatu izan nau aurrera egitera. Pertsonalki, gaur egun taldeko

hasierako belaunaldiko kideen seme-alabak edukitzea lorpen handia izan dela uste dut.

Eta nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?

Haurtzaro Atletismo Taldea, elkarte bezala, hurrengo urteetan entrenatzen jarraitu nahi dutenei entrenatzen jarraitzeko prestatuta dago. Atleta berriak etortzen badira, aurretik daudenekin batera entrenatuko ditugu, eta inor etortzen ez bada, gure artean entrenatuko gara, forman mantendu beharra dago eta!

Asko eman diozu gure herriko atletismoari. Zer bueltatu dizu berak?

Ez dut inoiz pentsatu zerbait ematen ari nintzenik. Hain jatorra eta dibertigarria den talde batean zaude-nean, eta adin tarte handiak egon arren, ongi pasatzen jarraitu eta beraiek gustura dabiltzala ikusten baduzu, zer gehiago eskatu dezakezu? Lagun artean zaudenean ez zara pentsatzen jartzen ematen edo jasotzen ari ote zaren. Hor zaude, eta kitto!

Hainbeste urtetan, bitxikeria mordoa bilduko zenuen. Aukeratu baten bat...

* Proben aurreko egunetan aholkuak ematen ditugu beti. Behin, nire euskara "bikainean", horrela esan nion "mozuelo" bati: Ez astu bihar iltzeko zapatillakin. Etxera iritsi zenean, haurrak amari: Perikok esan du bihar etxeko zapatilekin joateko. Eta halaxe azaldu zen probetara.

* Euskadiko pista txapelketa, Bilbon. Aitor Elizalde eta biok pistan sartu ginenean, pertika jauzia banbu kanabera batekin egiteko asmoa genuela ikusi zutenean, inguruko harridura aurpegi eta irribarreak sekulakoak izan ziren. Bukaeran, ordea, gu izan ginen etxera irribarretsu joan ginenak: urrezko domina eta Gipuzkoako errekor berria.

Eskerrik asko egiten duzun lan guztiagatik...

Eutsi beste 30 urtetan gutxienez!





Mon experience en Bretagne

1. Zer da gehien gustatu zaizuna?
2. Zer da gehien harritu zaituena?
3. Zer ikasi duzu?
4. Zer moduz moldatu zara beste kultura bateko familia giroan?
5. Gomendatuko zenuke trukean parte hartzea?

DBH 4ko IKASLEEN ERANTZUNAK

Uxue Flamarique

1. Sortutako harremanak eta elkarbizitzako beharrezko balioak ikasi ditugula. Kultura ezberdin bateko jendearekin harremanetan egoteak gure ikuspegia zabaltzen du.
2. Kultura ezberdin batekin bizitzea. Oso aldaketa handia izan da hara joatea eta zeure burua egun batetik bestera beste kultura batean kokatzea.
3. Ez dugula inor itxuragatik epaitu behar. Izan ere, ikusten dugun pertsonarik xebleenak ere harritu gaitzake.
4. Hasieran ez nuen inolako giro onik ikusten, baina egunak pasa ahala hobetzen joan zela ohartu nintzen eta orain eskertzen diet nirekin izandako goxotasuna.
5. Bai. Gozada bat da. Askok ikasten da eta oso harreman estuak sortzen dira astebetean.




Eider Tome

1. Bretainiarrekin izan dugun harremana. Hasiera-hasieratik konfiantza egin dugu eta ez zuen ematen astebete baino gutxiagotik elkar ezagutzen genuela.
2. Gehien harritu nauena bertako ikasleei bretoiara ez gustatzea izan da. Nik uste nuen guk euskarari ematen diogun garrantzia eta diogun maitasun bera izango zutela, baina ez diote hainbesteko garrantzirik ematen.
3. Bestelako kultura eta egoera batean bizitzen. Hartu-eman bat bezalakoa izan da.
4. Hasiera-hasieratik bertako familiako kide sentitu nintzen, oso ondo zaindu ninduten, haietako bat izango banintz bezala. Gustura itzuliko nintzateke berriro bertara.
5. Bai. Ahal izango banu bertara joango nintzateke aldi batez bizitzera.



Aritz Valderrama

1. Bertako paisaia. Deigarri egiten da, batez ere kostak, itsasoa, amildegia, arroak... Eta mendia ere badauka.
2. Sortu ditugun harremanak, ez nuen espero hain lagun onak egingo ginenik.
3. Gure bi kulturek antzeko egoera bizi dutela, bretoiara galtzen ari da eta geroz eta jende gutxiagok hitz egiten du. Horregatik saiakera handia egiten da bertako <diwan> edo ikastoletan hizkuntza berreskuratzeko.
4. Hasieran lotsatuta sentitzen nintzen, baina denborekin konfiantza gehiago lortzen joan nintzen.
5. Bai, beste familia bateko kide gisa sentitzen zara.



Sara Alberdi

1. Han ginela egindako bisitak gustatu zaizkit, batez ere leku berriak ezagutzeko, eta kultura ezberdinetako jendea nola bizi den ezagutzeko.
2. Beraien bizimodua. Oso goiz itzultzen dira etxera, 19:30ean afaltzen dute, eta berehala ohera joaten dira. Harritu nauen beste gauza bat, familian gauza asko egiten dituztela da. Hemen, lagunekin ateratzen gara, eta familian ez dugu ia ezer egiten. Han, berriz, alde-rantziz.
3. Gauza asko ikasi ditut bretoien kulturari buruz. Gurearen desberdina da, baina baditu antzekotasun batzuk ere. Gainera, frantsesez hobeto hitz egiten ikasi dut, orain hobeto moldatzen naiz frantsesez hitz egiteko.
4. Ondo moldatu naiz. Gurasoak, familiako beste bat izango banintz bezala zaindu naute, beraien familiakoak bagina bezala.
5. Bai. Nire ustez, trukea oso ondo dago, beste kulturetako jendearen bizimodua ezagutzeaz gain, lagun asko egiten baitira.





Dani Gonzalez

1. Gure ikaskideen arteko harremana sendotzea eta lagun berriak egitea. Horretaz gain, janaria oso goxoa zegoen.
2. Oso sakabanatuta bizi direnez, ohituta daude familian egoten. Egun batzuetan, ikastetxeko barnetegian lo egiteak ere harritu egin nau.
3. Nik uste nuena baino hobeto moldatu naizela frantsesez hitz egiteko konturatu naiz. Bestalde, bretoienez hainbat hitz ere ikasi ditut.
4. Oso ondo moldatu naiz, atsegina izan da astebe-
tez beste familia batean bizitzea. Familiako kidea banintz bezala tratatu naute.
5. Dударik gabe gomendatuko nuke, lau urtez frantsesa egitearen saria izan baita.



DBH3KO IKASLEEN ERANTZUNAK

Amaia Cortes

1. Bertan, beste hizkuntza bat erabiliz lortu dugun giroa. Oso lasaia, alaia, polita... zen. Denon artean ondo eramatea ederra izan zen. Beste kultura bat, beste hizkuntza bat, baina ez ginen hain ezberdinak!
2. Izugarritzko lasaitasunarekin bizi dira; ez dute estresik. Benetan lasaigarria izan zen Britainian izandako aste hori.
3. Egia esan, nik uste nuen baino hobeto moldatzen naiz frantsesez. Ez banintz Britainiara joan seguru-
enik ez nuen jakingo.
4. Nahiko ongi. Beharbada beraiek ez zeukaten oso argi gu euskaldunak garela, eta ez espainiarrak, baina astea aurrera joan ahala hori ere ikasi zuten. Beraz ongi moldatu nintzen beraiekin. Gainera aita Indiakoa zen, eta horri esker indiar kultura ere ikasi nuen zertxobait.
5. Noski! Nola ez! Ez dut alde negatiborik ikusi, denak oso zintzoak baitziren.



Jokin Irastorza

1. Beste herrialde bat eza-
gutzeko aukera izatea gure kasa, batik bat, den-
bora libreari esker; lagu-
nekin gure airera ibiltzea. Baita jendea ezagutu eta erlazio edo harreman berriak egite ere.
2. Bertako sakabanaketa. Hemen ez bezala, han,




herri ezberdinetan eta elkarrengandik oso urrun bizi dira ikasleak; ikastetxetik zer esanik ez. Ondorioz, behin klaseak bukatutakoan, nor bere etxera joaten da eta ez dago lagunarteko girorik eta ez (ia) eskolaz kanpoko jardunik ere arratsaldean.

3. Frantsesa, beste kultura baten berri, beste familia baten ohituretara ohitzen eta familia arrotz batekin egunerokoa komunikatzen, eta gure antzeko egoer-
an dagoen hizkuntza eta herri baten errealitateaz ohartzen.
4. Nahikoa ongi, arazorik gabe, nahiz eta hango ohi-
tura batzuk oso arraroak egin eta euren ordutegira ohitzea kosta. Oso harrera ona izan dut.
5. Dударik gabe. Oso esperientzia aberasgarria da, eta oso ongi pasatzen da. Merezi du!

Imanol Ugalde

1. Niri gehien gustatu zai-
dana bertako jendea eta kultura ezagutzea izan da. Britainiako pertso-
nekin oso erraza da harre-
manak egitea, eta oroi-
tzapen onekin geratzen naiz. Egiten diren ibilal-
diak oso baliogarriak egin zaizkit beraien bizimodua eta kultura ezagu-
tzeko.
2. Gehien harritu nauena bretoiaren erabilera urria izan da. Ikastolan bakarrik erabiltzen dute eta etxe-
an frantsesa da nagusi.
3. Gauza asko ikasi ditut: frantsesa, bretoi-
en kultura, ohiturak... batez ere ikasi dudana eta baliogarria egingo zaidana jendearekin harremanak egitea da. Elkarri lagundu diogu eta gauza ugari partekatu ditugu. Dударik gabe truke honen gauza onenetari-
koa.
4. Hizkuntzarekin zenbait arazo eduki ditugu, baina gainontzeko gauzetan ongi integratu naiz, batik bat goiz altxatzeko ohituran.
5. Bai, noski. Britainian bizi izandako esperientzia behin bakarrik bizituko dut, eta gainera, nire oroi-
tzapenetan ongi gordeta egongo da. Dударik gabe Britainiara joateak asko merezi izan du, eta ahal izango banu, esperientzia berriz errepikatu nahiko nuke





Euskal Eurohiriko trukea

Hautzaro ikastolako eta Baionako
Etxepare Lizeoko ikasleen arteko trukea



Aurten, bigarren urtez, DBH 4.mailako Biologia Geologia arloko ikasleek Eurohiriko Truke Programan parte hartu dute, Baionako Etxepare Lizeoko ikasleekin batean.

Pasa den martxoan bi ikastoletako ikasleek Aiako Harriko Parke Naturala ezagutu eta gozatzeko asmoz, Arritxulo aterpean eguna eta gaua eman zuten. Baionako ikasleei harrera egin ondoren, Errenga mendira igo ginen, bertan bazkaldu, eta arratsaldean aterpean tailerrak egin eta afalostean harremanak estutzeko asmoz gaubeila antolatu genuen. Biharamunean, Txingudiko padurak ezagutzeko Plaiaundiko Parke Ekologikoa eta bertako ekoetxea ezagutu genituen, eta Eurohiriaren lurraldean hezeguneak hegazti migratzaileentzat batez ere zein garrantzitsuak diren ikusi genuen bertan. Interes handia adierazi zuten ikasleek, eta Plaiaundiko arduradunak zoriondu zituen erakutsi zuten interes eta portaera zintzoarengatik. Bestalde, maiatzaren 13an, programari amaiera emateko eta Euskal Eurohiriko ingurumen eguna ospatze-

ko 250 ikasle bildu ziren Erreterian antolatutako Kongresuan. Bertan, Julen Mendoza Erreterriako alkateak eta Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren zuzendarikideak egin zuten harrera, Niessen auditoriumean. Goizeko saioan, Izaro Idarreta eta Larraitx Etxarte ikasleek, Baionako beste hiru lagunekin batera, oholztatik, gure esperientziaren berri eman zuten, bideoz, argazkiz eta hiru hizkuntzetako azalpenekin batera. Ikasturtero, Eskola Agenda21 programarekin egin bezala proiektua gidatuko duen gaia aukeratzen da, eta "Euskal Eurohiriko korridore ekologikoak" izan da ikastaro horretan aztertutakoa.

Arratsaldean, Merkatu zaharrean, goizeko nerbioak alde batera utzita, joko tradizionalak eta Flasmobe animatu bat izan zituzten, eta, bertan, ikasle eta irakasle askok hartu zuten parte.

Seaskako ikasleekin egiten dugun truke honetan bizi-tutako esperientzia aberats honek jarraipena edukiko duelakoan, datorren ikasturteari begira pentsatzen jarriak gara; gure inguruneak ezagutu eta lagun berriak egiteko aukera baita.






LH3 mailan naturak eskainitako fenomenoaren lekukoak izan gara

Mirenen gelara zetazko harren arrautzak ekarri zituen Anek. Arrautza horiek ernalduta eta har txiki-txikiak hazten ikusi genituen.

Horretan genbiltzala arazo latz batekin topatu ginen: Har hauek morera hostoak besterik ez dute jaten eta morera hostoak topatzea zaila zen, oraindik hostoak jaio gabe baitzeuden. Azkenean, nola hala, har horiek handitzen hasi ziren eta Mirenek hiru geletan banatu zituen. Zapata kaxa antolatu eta morera hostoak bilatzeari ekin genion. Bidegorriko zuhaitzari esker harrak hazi eta handitzen joan ziren. Aste Santuko oporrak tarteko, harrak etxera eraman eta etxean elikatu genituen. Garai honetan jan eta jan aritzen dira eta.

Duela hilabete krisalida bihurtzen zirela konturatu ginen. Krisalida egiten ere ikusi genituen. Hilabete pasa da lehenengo tximeleta jaio denetik. Krisalidatik nola jaio eta krisalida barruan har azala utzi duela ikusi dugu.

Eta orain bi tximeletak elkartu eta arrautzak egin dituztela konturatu gara. Gela batetik bestera tximeletak ere pasa ditugu bestela ez baitituzte arrautzarik egingo, arrautzak beharrezkoak dira harrak berriz sortzeko. Ernalduta daudela jakiteko arrautza horiek belztuta egon behar omen dute, gureak oraingoz horiak dira. Une honetan tximeletak ez dute morera hostorik jaten.





ASMAKIZUNAK

1)

Nola zula daiteke globo bat bertatik ainerik atera gabe eta zaratarik egin gabe?

2)

Hil batzuek 31 egun dituzte; 30ekoak ere badira. Baina zenbatek dituzte 28 egun?

3)

Bart gauean,
osaba irakurtzen
ari zela, izebak
argia itzali zuen.
Gela erabat ilun
geratu zen, baina
osabak irakurtzen
jarraitu zuen, ezer
gertatu ez balitz
bezala. Nola lite-
ke?

Erantzunak:

1. Globoak puztu gabe.
2. Hilaibete guztiak dituzte 28 egun.
3. Osaba itsua zelako

Aurkitu desberdintasunak



Hamahiru urte luze jarrera onean
izan zaretelako gure aldamenean

esan nahi dizuegu azken egunean:
zuen eixera itzuli nahi duzuenean.

Hautzaro Ikastola, 2014ko ekaina



Aurretik atzera eta ezkerretik eskuinera

LEHENENGO ILARAN:

Eneko Artola, Uxue Flamarique,
Ainara Alkorta, Maddi Agudo,
Estibalitz Fernandez, Alaitz Cachafeiro,
Matxin Cazabon, Ekaitz Benitez,
Aritz Valderrama, Josu Leonet, Oier Lopez,
eta Guillem Guiart.

BIGAREN ILARAN:

Aitzol Toledo, Markel Galdos,
Oihan Manzísor, Mikel Etxebeste,
Eider Tome, Ane Cruz, Garazi Ezkerro,
Sara Alberdi, Ane De Juan,
Lander Isasa eta Xabier Ondaro.

HIRUGAREN ILARAN:

Gorka Lekuona, Iokin Dehesa, Nagore Iza,
Julen Maya, Julen Lizarraga, Ane Arruti,
Maddi Ibarguren, Maddi Zapirain,
Izar Gaztelumendi, Leire Gundin,
Maialen Claver eta Joseba Alvarado.

LAUGAREN ILARAN:

Jon Garcia, Ekain Alberdi, Eki Sagarzazu,
Ioritz Labandibar, Aritz Leonet,
Goiatz Goiria, Larraitx Etxebeste,
Ane Lizarraga, Daniel Gonzalez,
Udane Claver, Ane Sein eta Unai Loiarde.

BOSTGARREN ILARAN:

Altor Torres, Izaro Idarrela,
Irati Sein, Iker Mitxelena,
Iker Mujika, Larraitx Echarte,
Juan Jose Cardona, Josu Apezetxea,
Julen Alonso, Haitz Errazkin eta
Imanol Elizondo..

txinpart⁵⁹

www.haurtzaroikastola.net



Mendiburu kalea, 2 · © 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRÚN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN

© 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.C.
KOROLATUTAKO KIDUEKETA
GOSTOEN INTEGRAL PEBLUPORTATIBO



ELORSIEN KIROLEDIA • Euzkadi 24
T: 943 492 550 • M: 629 761 892
F: 943 490 591 • gezak@telefonos.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

